

Zertan da hezkuntzako 3L proiektua?



MIKEL BASABE KORTABARRIA
IRAKASLEA

Galdera egiten dut, ez baitakit une honetan zelan dagoen “esperimentazioa” izan behar zuen proiektu hori. 2014an ebaluatu zuten, eta harrezkero, nik dakidala, ezer ez: ez arre, ez iso. Ez orokortu, ez kendu. Emaitzarik ematen du batere?

Ai, barkatu, irakurle! Niretzat hain da ohikoa 3L kontzeptua ze, pentsatu dut badakizula zertaz ari naizen. Begira: ipuinak “bazen behin...” hasten diren bezala, Hezkuntza Hirueledunaren Esparrua modu esperimentalean honelaxe abiarazi zuten: “Bi hizkuntza ofizialen irakaskuntza hezkuntza-sisteman nahiko egonkor-turik dagoen honetan...”, 2010ean!

Sozialisten hauteskunde-programan agertzen zen 3L proiektua nahitaez abiarazi behar izan zuten modu esperimentalean; izan ere, bertan planteatzen denak lekurik ez du indarrean dagoen hezkuntza-legean. Horretan, hiru eredu ezartzen dira, A, B eta D, zehaztuz irakaskuntza-hizkuntza gaztelania edo euskara izango direla. 3L proiektuak, oster, ingelesa ere sartzen du irakaskuntza-hizkuntzen ar-

**Arduragabea da 3L
esperimentazioa lege
berria onartu arte
mantentzea, benetan
lortzen dituen emaitzei
buruzko ikerketa egin barik**

tean, eta ez nolana hiru sartu ere: orduen %20 irakatsi behar dira ingelesez. Gaztelaniaz beste hogeit hamar, eta euskaraz ere, ehuneko hogeit hamar. Falta diren orduak, guttizkoaren %40, ikastetxeak erabakitzen duen hizkuntzan ematen dira. Zeren araberak erabaki? Batek daki. Kontuan izan behar baita ebaluazio diagnostikoetan Hezkuntza Sailak ez duela mintzamera neurtzen. Ezta idatzia ere: ulermena baino ez du neurtzen.

Horri gehitu behar zaio gure sistemako ikasleek ez dutela kanpoko azterketarik egiten euskaraz benetan duten

ezagutza erakusteko: B1 onartzen zaie DBH D edo B ereduetan ikasitakoak, eta B2 batxilergokoak. Baita 3L eskola batean ikasi badute ere. Hau da, baita euskaraz irakastorduen %20 besterik izan ez badituzte ere.

Pentsatzen dut Jaurlaritzak hezkuntza-lege berria onartu gurako duela legegaldi honetan. Gehiengo badu, eta ikusi egin beharko da kontzertatuen alde dauden oposizioko taldeek zer erabaki hartzen duten. Baina arduragabea da 3L esperimentazioa lege berria onartu arte mantentzea, benetan lortzen dituen emaitzei buruzko ikerketa egin barik. Ikerketa serioa, ahozkoa ere kontuan hartuko duena.

Arduraz jokatzeko litzateke, berriz, lege berriko testurako Jaurlaritzak hezkuntza-eredu bakarra planteatzea, urte bikoetan gelatik DBH4ra hartuko duena, zeinean euskara izango den lehenengo urteetako irakaskuntza-hizkuntza eta gainerako biak, gaztelania eta ingelesa, mailakaturik sartuko diren, ikasturteetan aurrera egin ahala. ●

Basherrri
sarea
GRUZKOAKO KONTSUMO TALDE ETA KOOPERATIBAK

Elika gaitzen irizpideak kontuan hartuta eta amalurra zainduz

655709043 | info@basherrisarea.eus